

LISIEUX-ko TERESE

Aita Santi Onaindiak beste liburu eder bat be kaleratu dausku. Santa Teresitaren autobiografia dogu berau. (*Lixieux-ko Terese, Arima baten Istoria*. Itzultzaile: Aita Onaindia. Larrea 1991 318 orr.) Liburu onen itzulpena egiteko, Teresitaren esku-idatziak frantzesez erabili ditu A. Onaindiak. (*Sainte Thérèse d l'Enfant Jésus. Manuscrits autobiographiques*, Lisieux 1957. XXIII - 352 orr.) Baita erderazko itzulpen au be, (*Historia de un alma*, Espiritualidad, Madrid 1976).

Ainbat eta ainbat izkuntzetara itzulitako liburu zoragarri au, ia eun urte egon da euskeratu barik. Ta eskerrak Aita Onaindia langille nekaeziñari, emendik aurrera, Teresitaren paregabeko mezua euskeraz dastatu geinke. Euskera ederrean gozatu geinkez monja gazte onen experientzi sakon eta zirrargarriak. Ona emen iru ejenplu unkigarri.

Teresitaren Jaungoikua errukiz beterik agertzen jaku.

Oi, ene Ama maitel, ainbat grazi artu ondoren salmulariagaz abestu neike: «Jauna ONA da, betikoa are Errukia (Sal. 117,1). Uste dot izaki guztiak nik ainiako graziak artu ba lebez, Jainkoa ez litzateke bildurkor iñorentzat be izango, zoratzeraiño maitatua baiño eta maitatzearren, eta bildur bage, arima batek be egundo ez leuke irainduko... Uleritzen dot, alan be, arima guztiak


ezin leikezala bardiñak izan; naitaezkoa da famili ezbardiñak egotea, bakotzak omendu dagian batez Jainkoaren gaitasun bat. Niri bere erruki azken bakoa emon daust eta, bere bitartez, ikusi eta gurtzen ditut beste Jainko osotasun batzuk... Olan danak iruditzen jataz maitasunez dizdizka, baita Zuzentasuna bera be (eta bear bada beste edozein baiño geiago) iruditzen jat maitasunez jantzia... Bai pozgarria Jainkoa zuzena dala pentsatzea, au da, kontuan daukazala gure argaltasunak, osoro ezagutzen dabela gure izatearen argala! Zeren bildur izango, beraz? Ol, Neurri barik zuzena dan Jainkoa, seme ondatzailleari ontasun aundiz falta guztiak parkatzen dautsozana, nigaz be «beti Beragaz nagon onegaz be» ezta izango zuzena?... (luk. 25, 31). (212. orrian)

Bere bokaziñoa, Eleizaren biotzean, maitasuna besterik ez da izango.

Aurkitu neban azkenik be atsedena... Eleizaren gorputz mistikua gogora ekarriz, Paul Apostoluak esandako soin-atal baten be ez neban neure burua aurkitu, edo, obeto esanda, guztietan ezagutu izan nintzan... Goi-maitasunak emon eustan neure deia ren giltza. Ulertu neban, eleizeak gorputz bat eukala, atal askok osotua; bear-bearrekoenak, guztietak beñienak ezin uts-egin; ulertu neban Eleizeak biotz bat eukala, eta biotz au MAITASUNEZ IZETUTA egoala. Ulertu neban Eleizearen atalai maitasunak eragiten eutsela eta maitasuna itzaliko balitz, apostoluak ez leukiela Ebanjeliorik otsegingo, martiriak ez leukiela odolik jarion nai izango... Ulertu neban, MAITASUNAK DAUKAZALA BEREGAN DEI GUZTIAK; MAITASUNA DALA GUZTIA; ALDITA TOKI GUZTIAK BEREGAN ARTZEN DAUAZALA... BERBA BATEAN BETIKOA DALA...

Orduan, egi-egiazko poztasun itzalean, esan neban: Ol, Jesus, ene Maitasun!... Aurkitu dot azkenez neure deia. NIRE BOKAZINO A MAITASUNA DA!... Bai, aurkitu dot neure lekua Eleizan, eta leku au, Ol, ene Jainko!,

LISIEUX-KO
TERESE



5
P. 31
3
4
5
6
7
8
9
10
11
12
13
14
15
16
17
18
19
20
21
22
23
24
25
26
27
28
29
30
31
32
33
34
35
36
37
38
39
40
41
42
43
44
45
46
47
48
49
50
51
52
53
54
55
56
57
58
59
60
61
62
63
64
65
66
67
68
69
70
71
72
73
74
75
76
77
78
79
80
81
82
83
84
85
86
87
88
89
90
91
92
93
94
95
96
97
98
99
100

Zeuk emon daustazu... Eleizan, neure Amaren biotzean
Maitasuna izango naz ni... dana izango naz olan... olan
beteko da nire amesal...(226.)

Lisieux-ko Tereseren santutasuna, Jaungoikua berbera dogu

Eskerrak Zuri, ene Jainko!, egin daustazuzan mesede
guztien alde, batez be sufrimentuaren arragoan erabili
nozulako. Poz-atsegiñez ikusiko zaitut azken egunean,
gurutzearen makilla eroatean. Eta gurutz bikain onen erdikide
egin nozun ezkerre, zeruan zeure antzeko izango nazala
uste dot eta dizdizka ikusi neure gorputz aintzatu gaiñ zeure
Pasiño zauri sagaratuak...

Lur-gaiñeko erbeste ostean, Aberrian zeugaz atsegintsu
biziko nazala uste dot, baiña ez neunke zerurako meriturik
pillatu gura, lan egin nai dot bakar-bakarrak zeure
maitasunaren, Zuri poza emon nairik soil-soil, zure Biotz
Onari poza emoteko eta betiren beti maite izan zagiezan
arimak zeruratzeko.


Bizitza onen arratsaldean, Zuere aurrean aurkeztuko
naz esku utsik ez dautzut eskatzen ba, Jauna, nire lanak
kontuan izatekorik. Gure justizi guztiak orbanak daukiez
zure begien aurrean. Zeure Justitziz jantzi gura dot, ba, eta
Zeure maitasunetik artu Zeu-zeu zarean betiko jaubetza. Ez
dot nai, beste tronurik ez koroirik, Zeu izan ezik, o ene
Maitel!» (308.)

Itzulpenaren utsak

«Traduttore, traditore» italiar esaerak diñoanez, A. Santiren
itzulpenak be baditu bere utsak eta bere akatsak. Bistakoenak
oneexek dira.

1. Ez berba bakarrak, baita esaldi osoak be itzuli barik geratu
dira. Adibidez: «et ils vinrent à Lui» (Manuscrits, p.4); «mes cris... Je
ne pouvais comprendre qu'elle ne partageât pas ma peine» (ms.,
19); «ayant la même taille et la même démarche, seulement il était
beaucoup plus courbé» (Ms., 48); «je puis dire ces paroles du

LISIEUX-KO
TERESE



JUN 1

neukazan» (A.O. 27.) *Gitxiago* falta da «erdi» eta «neukazan» bitartean. «Esku gurgarri onek inoiz be itxiko» (A.O., 161.) *Ex dau* falta da «be» eta «itxiko» bitartean. «Illunpe trinkoz beteriko eskualde baten jaio nazala egiten dot» (A.O. 246.) *Amets* falta da frasea amaitzeko. Ta olaintxe beste ainbat berba. Sobra dagozan berbak be ez dira falta. Adibidez: «maitekiro» (A.O., 16.); «eder zoragarriak» (A.O., 17.) eta abar.

Esannaia kutsatuta

2. Itzulpenean, ainbat fraseen esannaia ez da ain egokia. Adibidez: «Longtemps je me suis demandé pourquoi le bon Dieu avait des préférences, pourquoi toutes les âmes ne recevaient pas un égal degré de grâces» (Ms., p.5) Eta Aita Onaindiaren (A. O.) itzulpenak beste au diño: «Neure buruari itaunka egon naz luzaro zergaitik eukazan Jainkoak bere preferentziak, zergaitik ez ebezan arimak artzen neurri bardiñean euren graziak» (A. O., 16. orrian)

«Euren» ori txarto dago. Ez dira santuen graziak, Jaungoikuarenak baiño.

- «Ainsi en est-il dans le monde des âmes qui est le jardin de Jésus» (Ms., 5) «Bardin jasoten da arimen munduan be, au da Jesusen baratzean be» (A. O., 17.)

Obeto: Bardin jasoten da Jesusen baratza dan arimen munduan be.

- «En effet le propre de l'amour étant de s'abaisser» (Ms., 6) «Izan be, maitasunari be egotea dagokion ezker» (A.O., 17.)

Maitasunari jaitea dagokio, ez «be egotea», «s'abaisser» diño Teresitak.

-«Hier j'ai voulu lui donner une rose sachant que cela la rend heureuse» (Ms., 13) «Atzo larrosa bat emon nai izan eutson onek zoriontsu egingo ebana ekialako» (A.O., 23.)

Frase onen sujetua ez da Maria, Teresitaren aizta nagusia, bere ama baiño. «eutson» eta «ekialako» barik, «neutson» eta «nekiako» esan bear da.

-«Leur vie se passait dans une contemplation continuelle» (Ms., 56) «Begitu ta ikusi orrelaxe emoten eban bere denporea» (A.O., 63.)

Obeto Legoke: Etenbako kontenplazioan emoten eban euren denporea.

-«L'après-midi de chaque Jeudi c'était congé, mais ce n'était pas comme les congés de Pauline, je n'étais pas dans le belvédère avec Papa» (Ms., 55) «Eguen arrastian oporrak eukazan, baiña etziran Paulina'ren oporrak lakoak; oneik ez ebazan emoten ikus-lekuan aitagaz» (A.O., 62.) «eukazan» eta «ebazan» ordez «neukazan» eta «nebazan» obeto dagoz.

-«Ah! mes chères petites Soeurs, que je vous ai fait souffrir!» (Ms., 69.) «A! nire aizatxo maiteari zenbat sufridu eragin dautsedan» (A. O. 76.)

Obeto: A! nire aizatxo maiteok, zenbat sufridu eragin dautsuedan.

-«Le fils d'un habile docteur» (Ms., 92) «maisu jakintsu baten seme» (A.O., 99.)

Obeto: mediku trebe baten seme

-«aux âmes je donnais le sang de Jésus, à Jésus j'offrais ces mêmes âmes» (Ms., 112) «arimai emotsen Jesusen odola; Jesusi eskintzen eutsozan arima oneik» (M.O., 118.)

Obeto esanda: arimei Jesusen odola emoten neuntsen, Jesusi arima oneek eskintzen neuntsozan.

-«il était allé s'asseoir au bord de la citerne et là, les mains jointes, il contemplait les merveilles de la nature» (Ms., 121) «Potzu-aora joan nintzan jarten eta antxe, eskuak alkar, izadiko arrigarriak ikusten nengoen» (A.O. 127.)

Frase onen sujetoa ez da Teresita, bere aita baiño. Beste itzulpen au obeto legoke: Potzu-aora jartera joanda egoan eta antxe, eskuak alkar, izadiko arrigarriak kontenplazten ari zan.

«Un matin à trois heures, je traversai la ville de Lisieux encore endormie» (ms., 139) «Goizeko irurretan zearkatzen eban oraindik lo egoan Lisieux'ko uria» (A.O., 145.)

«Zearkatzen eban» barik «zearkatzen neban» esan bear da.

«A moi Il a donné sa Miséricorde infinie et c'est à travers elle que contemple et adore les autres perfections Divines!» (Ms., 209)

«Niri bere erruki azken bakoa emon daust eta, bere bitartez, ikusi ta gurtzen ditut beste Jainko osotasun batzuk» (A.O., 212.)

«Les autres» ez dauko frase onetan «batzuk»en esannaia, Obeto dago onela: ikusi eta gurtzen ditut beste jainko-perfektio guztiak.

«Je me demande même comment il se fait que pensant la journée au Bon Dieu, je ne m'en occupe pas davantage pendant mon sommeil» (Ms., 197) «Neure kautan esan oi dot, zergaitik, eguna Jaungoikuagan pentsatzen egiñik, zergaitik ez dot Agan be amesik egiten» (A.O., 201)

«sommeil» esangura ez da amets, lo baiño. Orduan obeto itzulita: eguna Jaungoikuagan pentsetan jardunik, zergaitik ez naz arduratzen geiago beragaz, lotan be.

«Ah! je le sens bien, Mère chérie, c'est le Bon Dieu qui me parle toujours par vous» (Ms., 242) «O! badakit ondo be, Ama maite, Jainkoa dala beti zure orde z berba egiten daustana» (A.O., 238.)

«Ordez» barik «bitartez» obeto dago.

«cette épreuve ne devait pas durer quelques jours, quelques semaines, elle devait ne s'éteindre qu'à l'heure marquée par le Bon Dieu» (Ms 250) «proba onek, egun batzuk, aste batzuk iraungo eustan, Jaunkoak markaturiko orduarte luzatuko zan» (A.O., 246.)

Lenengo zatia txarto itzulita dago ta onela obeto geratzen da: proba onek ez ebazan iraungo egun batzuk, aste batzuk...

-«aussi jamais je n'ai demandé au Bon Dieu de mourir jeune» (Ms., 255) «origaitik, ezin ni il gazterik» (A.O., 250)

Nire ustez: origaitik ez deusatz inoiz be Jaungoikuari gazte ilterik eskatu.

-«c'est de cette tendresse que vous aime» (Ms., 256) «asko-gura orregaz maite zaitut nik» (A.O., 251.)

«asko-gura orregaz» baino politxagoa da beste au «samurtasun orregaz»

-«la récréation n'était pas gaie» (Ms., 266) «jolasaldia etzan itzegitekoa» (A.O., 258.)

Noiz izan da «gaie» «itz-egitea»? Jolasaldia etzan alai, ta kitto.

-«aussitôt je commence à défaire notre tablier» (Ms., 286) «lana tolestuten asi nintzan beingoan» (A.O., 258.)

Txarto itzulita dago ta olan itzuli bear da: amantala kentzen asi nintzan beingoan.

-«j'étais ravie de joie» (Ms., 289) «pozez zoratzen egoan» (A.O., 279.) «egoan» barik «nengoan» da.

-«je dis à Marie» (Ms., 62) «Mariari esan eutson» (A.O., 69.)

«esan eutson» ordez «esan neuntson» da.

-«Marie me crut sur parole malgré sa répugnance à confier des secrets qu'elle n'avait pas» (Ms., 62) «Mariak sinistu eustan eta ez eukazan ixillak esatea, iguingarri jatan arren» (A.O., 69.)

«iguingarri jatan» barik «iguingarri jakon» esan bear da.

Aita Santiren itzulpenak uts lartxo ditula konturatzeko naikoa izango zan, Teresitaren testu zati au batetik eta Onaindiaren itzulpena bestetik, begien aurrean, jarrea.

Teresitaren testua:

«elle se rapelle tout». Vous voyez, ma Mère, combien j'étais lon d'être une petite file sans défauts! On ne pouvait

même pas dire de moi «que j'étais sage quand je dormais», car la nuit j'étais encore plus remuante que le jour, j'envoyais promener toutes les couvertures et puis (tout en dormant) je me donnais des coups contre le bois de mon petit lit; la douleur me réveillait, alors je disais:

«Maman, je suis toquée!...» Cette pauvre petite Mère était obligée de se lever et constatait qu'en effet j'avais des bosses au front, que j'étais toquée; elle me couvrait bien, puis allait se recoucher; mais au bout d'un moment je recommençais à être toquée, si bien qu'on fut obligé de m'attacher dans mon lit. Tous les soirs, la petite Céline venait nouer les nombreux cordons destinés à empêcher le petit lutin de se toquer et de réveiller sa maman; ce moyen ayant bien réussi, je fus désormais sage en dormant...» (Ms., 20)

Aita Onaindiaren itzulpena:

«danok gaukaz gogoan. Ikusten dozu, ene Ama, akats bako ume izatetik! Nitaz ezin leiteken esan «lo nengoala be ona nintzanik», gabaz egunez baiño be iperlokago genduan; pikutara bialtzen ebazan maindira guztiak eta gero (lotan egoala) neure oe-oletan golpeak emoten eustazan; miñak itxartzen nindun, orduan iñoan: «Amatxo, trimindu naz!...» Amatxo gaixoak jagi-azten nindun, eta baita ikusi be, egi-egiaz txori-buruak neukazala bekokian, trimindu nintzala; ondo estaldu ta barrero ni ogera; baiña andik laster golpeka asten nintzan ostera be, eta askotxo zalako neure oiari lotu bear izan ninduen. Zelina etorkidan gauero untxarta pitiñak ama golpeka itxartu ez egien lokarriak jartera; neurri ori etzan txarra izan eta currenantzean ona izan nintzan lo nengoan bitartean... (A.O., 29.)

Nik neuk onela itzuliko neuke:

«dana gogoratzen dau». Ikusten dozu, ene Ama, ze urrin nengoan akats bako ume izatetik! Nitaz ezin leiteken esan «lo nengoala be formala nintzanik», gabaz egunez baiño be biurriagoa nintzan-eta;

pikutara bialtzen nebazan oegaiñeko guztiak eta gero (lotan be) neure oetxo-buruaren kontra golpeak emoten nebazan; miñak itzartzen nindun, orduan niñean: «Ama, min artu dot». Amatxo gaixoa jagi egin bear izaten eban, eta baita ikusi be, koskorrekoak neukazala bekokian, min artu nebala; ni ondo estaldu, eta barrero oeratzan zan; baina andik laster min artzen neban osteran be, eta neure oiari lotu bear izan ninduen. Zelina gauero etortzen zan, diabrutxoak minik ez artu ta bere ama itzartu ez egien ainbat lokarri jartera; neurri ori etzan txarra izan eta aurrerantzean formala izan nintzan lo nengoan bitartean...

Inprentaren erruz

3. Bokalen eta kontsonanteen, au da, alfabetoko letre guztien artean gertatzen diran naste-borrasteen utsak inprentakoei leporatu bear jakez. Baita puntuen eta komen eta beste olako okerrak be. Ta berealaxe konturatzekoak dira oker orreek. Ta sarritan irriparretxoak sortu be bai. Esaterako:

«dat» (16. orrian) = dot; «Erakurrira» (16.) = Irakurrira; «arain» (18.) = orain; «kaka» (27.) = saka; «oindaka» (28.) = oinkada; «neukazan» (27.) = neukazan; «agiskidetxo» (32.) = adiskidetxo; «milla» (34.) = mailla; «adurpean» (42.) = edurpean; «amaira» (64.) = amaitu; «Jaunaren» (64.) = Juanaren; «lakua» (70.) = lekua; «eundienak» (87.) = aundienak; «dira nai» (86.) = diranai; «nira» (92.) = nire; «ortatk» (93.) = ortatik; «Papinat» (101.) = Papinau; «berberik» (106.) = berbatik; «alan» (116.) = lan; «egindu» (132.) = agindu; «eta ebar» (132.) = eta abar; «gogokiak» (133.) = gozokiak; «austala» (137.) = eustala; «nire» (134.) = niri; «Jaugana» (138.) = Jaunagan; «gaiñeatu» (144.) = gaiñeratu; «lukua» (151.) = lekua; «Zezilia» (157.) = Zelina; «baño baño» (161.) = baño; «egon» (164.) = egin; «madua» (167.) = modua; «legengoz» (169.) = lenengoz; «oreindik» (171.) = oraindik; «bizitzaren» (176.) = biotzaren; «guraia» (178.) = guraria; «askirik» (180.) = askorik; «saltzeko» (180.) = galtzeko; «indibiz» (185.) = inbidiz; «aindiz» (198.) = aundiz; «litzakit» (198.) = litzakit; «dala» (206.) = dana; «naizan» (208.) = nai izan; «gode»

(209.) = gorde; «ezan» (211.) = ezak; «naitasun» (213.) = maitasun; «leguntzen» (211.) = laguntzen; «zuk naia» (217.) = zure naia; «ixillak euki» (220.) = ixillik euki; «aita» (225.) = aizta; «naban» (226.) = neban; «guztietak» (226.) = guztietatik; «aren» (234.) = arren; «gorra» (253.) = gogorra; «izatea izatea izatea» (246.) = izatea; «urte» (258.) = uste; «idartuta» (275.) = indartuta; «erreztea» (281.) = errezetza; «den ore» (286.) = denporea; «zori» (289.) = zoriona; «eskitzen» (290.) = eskintzen; «goralera» (294.) = gorabera; «barrik» (295.) = barik; «udainen» (296.) = usainen; «itasoan» (298.) = itsasoan; «jako» (301.) = jagon; «zerutatu» (305.) = zeruratu; «dizkizka» (308.) = dizdikza; «Igikunde» (312.) = Igokunde; «jatak» (204.) = jataz; «amaira eltzeko urrin egoala-ta, zuk, ene Ama, arri» (A.O. 279-280.) Bi hider agertzen da jarraian eta naikoa dogu bategaz.

Lojistik eza

4. Berba bera frantzesetik euskeratzeko, euskeraz berba desberdiñak darabiltz. Esaterako: «cercle catholique» = «batzoki katolikua» batzutan, eta «batzarkide katolikua» bestetan; «préuve» = proba, prueba, frogia; «ascenseur» = goragaillu, igongailu, «justice» = zuzentasuna, justizia; «couvent» = konbentu, komentu; «abandon» = abandonu, bertanbera; eta abar.

Fetxa bazuk be ez datoz ondo. Teresa Avilakoa ezan jaio 1516an, 1515ean baiño. (A.O. 7.) Ezta Teresita be 1874an, 1873an baiño (A.O., 311.) Teresitaren aita ezan il bere alabatxoa konbentuan sartu eta iru illabetera. (A.O. 9.) Ixe zazpi urte pasau ziran bitartean. Paulina karmeldar monjetan 1882. urriaren 2an sartzen da, ta ez 1881. urtarrillaren 3an. (A.O., 311.) Ta Maria, Teresitaren aizta nagusia, urriaren 15ean sartuko da konbentuan, ta ez 13an. (A.O., 110.) eta abar.

Zoritxarrez, argi ikusten da, Aita Onaindiak ez dabela frantzesetik zuzenean euskeratu. Bestela uts gitxiago egingo ebazan. Uts askotxoren errua or dago. Madrilgo itzulpenari oso

osorik lotuta dago. Liburuaren egitamua bera be ixte antzekoa da. Oartxoak be guztiz ados datoz Madrilgoaz. Teresitaren jatorrizko testua aurrean euki ta auzoko solora gari billa joatea, penagarria da. Santa gazte onek merezi eban zer bait geiago. Beti be, orraitino, «melius esse quam non esse».

A. Olea



**ESTUDIO
FOTOGRAFICO**

ARGAZKARI

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak
Fotokopiak (Txikitzeak)*



ZARZEL S.L. VIDEO PROFESIONAL

San Miguel kalean, 14	Trañabarren, 13 Bloque 1-4
Urrut: 673 0509	Urrut: 681 1009
48340 Amorebieta	48220 Matiena (Abadiano)

JUAN MANUEL SASUATEGIAVISA: 444 3500 - Abonado 868